



Guraso agurgarriok:

Dakizuenez, ikastetxe publikoetan DBH egiten ari diren ikasleei zuzendutako garraiorako banakako diru-laguntzen deialdiaren agindua azaldu da (EHAA 2021-11-23) 2021-2022 ikasturterako.

Baldintza orokorrak

Ikasleek bete behar dituzten baldintzen artean ondorengo hauek gogorarazi nahi ditugu :

- Ikastetxea **2 km edo gehiagotara egon behar du (1-2 DBH-ko ikasleak)**
- Ikastetxea **4 km edo gehiagotara egon behar du (3-4 DBH-ko ikasleak)**

Etxetik ikastetxera edo ikastetxetik gertuen dagoen geltokira dagoen tartearen arabera egingo da distantziaren kalkulua.

- Eragin-eremuaren arabera ikasleari dagokion ikastetxera joan beharra izatea.

Eskaeren aurkezpena

1.– Eskabideak betetzeko, <https://www.euskadi.eus/informazioa/eskola-garraioa/web01-a2hikas/eu/> web-helbidean dagoen aplikazioa erabiliko da.

2.– Eskabideak, ikaslearen legezko ordezkariak behar bezala beteta, eranskinetako ereduaren arabera aurkeztuko dira, hilabeteko epean, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

a) telematikoki; horretarako, sinadura elektronikoa eduki behar da, ziurtagiri digitala indarrean duena (NAN, Izenpe txartela) edo itsasontzi-jokoa (b@kq).

b) paperean; horretarako, aplikazioak sortuko duen eskabide-inprimakia inprimatu, sinatu eta ikasleak ikasketak egiten dituen ikastetxearen zuzendariari aurkeztu beharko zaio, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan.

Eskaera aurkezteko epea

Eskaera aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 3an bukatuko da.

Laguntza ordaintzea

Izendatu diren diru-laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten zentroetara bidaliko da diru-zenbateko osoa. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean justifikatu beharko du zentroak ordaindu izana, ordezkariak emandako aginduei jarraituz.



Diru-laguntzen kontrola

Ikasturtea amaitzean eta 2022ko ekainaren 23a baino lehen, ikasle onuradunek ikastetxean entregatu beharko dute justifikatzeko eguneko edo asteko ikastetxera joan beharrak eragindako gastuak ordaintzeko izan dela esleipen horren zenbatekoa; eta ikastetxeak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, banakako esleipenen aplikazioaren bidez, onuradunen zerrenda jakinaraziko dio, eta berariaz adieraziko dio zein ikasleri dagokion eskatutako zenbatekoa baino zenbateko txikiagoa, azkenean ikastetxera joan den egunen arabera.

Zalantzak argitzeko, ikastetxeko web orria www.antigua-luberri.net, edo Hezkuntza saileko web orria www.euskadi.eus, kontsultatu daiteke, edo ikastetxeko Idazkaritzarekin harremanetan jarri.

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

Donostian, 2021ko abenduaren 2an